

BAKIO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

2019ko udal aurrekontua herritarrek eztabaidatu eta erabakitzekeo partaidetza prozesua

FORMAZIOA_ ONDORIOAK 2018-09-26

1. AURKEZPENA eta KOKAPENA (10')

Saioaren aurkezpena egin da, helburu nagusiak azaldu dira eta saioaren egitura erreparatu da. Gerturatu diren teknikariak beraien burua aurkeztu dute, teknikari- arloa azpimarratuz.

Parte hartzaileak:

- Liburutegiko arduraduna
- Euskara Teknikaria
- Hirigintza teknikaria
- Herritarren Harrera Zerbitzua
- Zerga bilketa
- Kontabilitatea

2. HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK (60')

Udal administrazioaren eginbidean herritarren parte hartzea sustatzearen eta integratzearen oinarritzko ideia batzuk partekatu dira. Gero, Bakioko aurrekontu partehartzaileen prozesuaren faseak azaldu dira, eta bide batez sortutako zalantzak argitu dira.

Hausnarketarako eta iritziak jasotzeko dinamika:

1. Partaide bakoitzak positibean Herritarren parte hartzea Udal administrazioaren eginbidean txertatzearen alde positiboak eta negatiboak idatzi ditu.

POSITIBOA
<ul style="list-style-type: none">- Irudimena- Gardentasuna- herritarren pertzepzioa positiboagoa- parte hartzea- jendea pozik egotea- Edonork eskatu ahal dau edozein gauza
NEGATIBOA
<ul style="list-style-type: none">- Ez daude- Udalaren prozesua moteltzen da- Lan karga handiagoa- Ez lortzea behar besteko partaidetza- Interes partikularra

- Partziala
- Ez dira proposamen estategikoak
- Batzuetan ez da bermatzen taldearen aniztasuna
- komunikabideen eragina
- Perfil bereko partaideak

2. Hirunaka elkartuta, Bakioko aurrekontu partehartzaileen prozesuaren zailtasunak eta aukerak identifikatu dituzte.

GALDERA	ERANTZUNA
Zeintzuk uste duzu izan daitezkeela zailtasun eta oztopo nagusiak? Non sortzen zaizkizu zalantzak?	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren eskaerak aurrekontuan enkaxatu ahal izatea. - Profil bereko partaideak soilik egotea - Zati txiki baten inguruan erabakitzen da - Teknikarien hitza ez da behar bezain erabakigarria - luzatu egiten da eta nekagarria izan daiteke
Eta, zein dira alde positiboak edo aukera posibleak?	<ul style="list-style-type: none"> - Jendea pozik agertuko da bere iritzia aintzat hartu ahal delako - Parte hartze bera positiboa da - Hezkuntza lana: behar moduko pedagogia egitea
Nola hobetu daiteke, zer egin daiteke? Aldaketak, proposamenak eta gomendioak.	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarrek lan orduetatik ordu libreak hartu ahal izatea parte hartzeko

3. BALORAZIO TEKNIKOAREN LAN FASEAN SAKONTZEA (30')

Balorazio teknikoaren inguruko xehetasunak azaldu dira. Lehenik, Aztikerrek proposatutako "balorazio fitxa" aurkeztu da. Ondoren fitxa betetzeko irizpide orokorrak azaldu dira, eta eredu bezala beste esperientzia batzuetatik lortutako fitxak erakutsi dira.

✓	PROPOSAMENA
✓	BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:
✓	AURREKONTUAREN ZEIN ATALI DAGOKIO
✓	AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):
✓	PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:
✓	PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:
✓	PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)

BALORAZIO FITXAK BETETZEKO IRIZPIDE OROKORRAK:

- ✓ Balorazioaren luzera edo tamaina, orri batekoa
- ✓ Zehatzak eta argiak izaten saiatuko gara:
 - Ahal den neurrian terminologia teknikoa saihestu
 - Hizkuntzaren ulerterraztasuna bermatzen saiatu.
- ✓ Proposamena zure arlokoa ez bada, Aztikerreko teknikariarekin harremanetan jarri eta dagokion teknikariari bideratuko zaio
- ✓ Proposamen baten aurrekontua kalkulatzeko, kontuan izan
 - Proiektua edo azterketa behar duen eta honen gastua.
 - Urteik urtera izango duen mantenu kostua
 - Kanpo kontratazioaren aukera
- ✓ Proposamen batzuk arlo ezberdinen artean elkarlanean baloratzearen garrantzia kontuan izan.
- ✓ Balorazioak egiteko denbora tarteak: AZAROAREN 12tik ABENDUAREN 2ra. Azaroaren 16an lehen zalantza erronda egingo dugu.

4. LAN SAIOAREN BALORAZIOA (10')

Baloratu 0 eta 10 artean honako esaldiak (0=ez, inondik inora - 10=bai, guztiz):

GALDERAK	0-10
- Emandako azalpenak ulertu dira?	9,2
- Beharrezkoa izan da formazio saioa egitea? Baliagarria egin zaizu?	8,4
- Izan dituzun zalantzak argitu ditu dinamizatzaileak?	8,4
Teknikari bezala kezkarik sortzen dizu prozesuak edo egin beharreko lanak?	
- Artxibo eta liburutegian ez dut proposamenik ikusten, Kulturen agian bai. Diru-laguntzak kudeatzea da nire beste zeregina. Interesgarria deritzot. - Espero dut guztien laguntzarekin aurrera egitea prozesu interesgarri hau	

Saioari amaiera emateko, parte hartzaile guztiei eskerrak eman zaizkie.